

ARETXABALETA / Loramendik eta udal euskaltegiak irakurketa bultzatu gura dute

Azken urteotan gehien irakurri diren liburuen izenen zerrenda eta gomendioak dituen diptikoa egin dute; herritarrek parte hartu dezakete ekimenean.

Mirian Biteri. Aretxabaleta.

Loramendi Euskara Elkartek eta Leintz Udal Euskaltegiak irakurketa bultzatzeko ekimena jarri dute abian. *Atxabaltan be leidu* lelopean, diptiko bat egin dute eta dagoeneko hasi dira horiel banatzen.

Udal euskalegiko Karmele Agirregabiriak jakinarazi duenez, banaketa gehienbat Internet bidez egin dute. Horren harira, Loramendi elkartearen bazkideei eta euskaltegiaren ikasleei bidali dietela aipatu du. Herriko ikastetxe guztietara ere modu berean bidali dutela gaineratu du. Baina, diptikoa paperean egitea ere ezinbestekotzat ikusi dute antolatzaileek. Hori dela eta, 200 bat diptitko egin dituzte, herriko tabernetan eta toki esanguratsuenetan banatzeko.

Lehenengo aldia da horrelako ekintza bat antolatzen dutela. Agirregabiriak azaldu duenez, normalean antolatzen diren ekimenak umeei zuzenduta daude eta oraingoan "helduendako zerbait egin beharra zegoela" iruditu zitzaaien antolatzaileei: "Gauza xemea egin dugu: azken urteotan gehien irakurri diren liburuen zerrenda eta herriko zortzi pertsonen gustuko izan duten liburu baten gomendio egitea".

Adin guztietako herritarrek aukeratu dituzte horretarako, hala nola, Inaxio Garro alkatea bera; 60 urtetik gorako Txaro Urrutia eta Ana Flores eta Iñaki San Miguel euskaldun berriak.

PARTE HARTZE PROZESUA

Diptikoa esku artean izan duen edozein aretxabaltarrak har dezake parte horretan. Interesa duenak gustatu zaion liburuaren gomendioa egin dezake eta Loramendira edo udal euskaltegira eraman behar du.

Gomendioa aurkeztera animatzen diren guztien artean, Bergarako Elkar liburu dendan 40 euroko bale bat zozketatuko da. "Ez da kontuan hartuko onena zein den; parte hartzaile guztien artean zozketatuko dugu", azaldu du ekimeneko antolatzaileak. Maiatzaren erdialdera arte dago aurkezteko epea. Zozketaren irabazlearen berri GOIENKARIAn emango dute.